

**Goi Mailako  
Lanbide  
Heziketa**

**Gizarte eta kultur zerbitzuak  
eta komunitatearentzako  
zerbitzuak**

# Haur hezkuntzako goi mailako teknikaria



**Nafarroako  
Gobernua**  **Gobierno  
de Navarra**



**UNIÓN EUROPEA  
EUROPAR BATASUNA**

**Fondo Social Europeo  
Europako Gizarte Funtsa**  
El FSE invierte en tu futuro  
EGFk zure etorkizunean inbertitzen du

# Haur hezkuntzako goi mailako teknikaria

## Zure etorkizuneko bizibidea

Ziklo hezigarri hau amaitzen duzunean kalifikatuta egongo zara hurrengo jardueran profesionalak garatzeko:

### Haur Hezkuntza

- Hezkuntza elkartearekin harremanak ezarri eta mantentzea, eta familiarekin, hezitzaile taldearekin eta beste profesional batzuekin koordinatzea.
- Hezkuntzako esku-hartze prozesuak programatu, antolatu, gauzatu eta ebaluatzea, ikastetxean eta haur taldeetan.
- Autonomiarako eta osasunerako ohiturak hartzeko eta lantzeko programak garatzea, eta arrisku egoeretan esku hartzeko beste batzuk ere bai.
- Jolas egoerak sustatu eta bideratzea, haurren jardueraren eta garapenaren ardatz gisa.
- Haurrek adierazpenerako eta komunikaziorako dituzten baliabideak garatzea, hazkunde pertsonal eta sozialerako bitartekoak diren aldetik.
- Haurrak objektuak ukituz ingurunea arakatzera eta kidekoekin nahiz helduekin harremanak izatera bultzatzeko ekintzak garatzea.
- Ikaskuntzak definitu, sekuentziatu eta ebaluatzea, eta zero urtetik sei urtera bitarteko haurren garapenaren testuinguruan interpretatzea.

### KONTUAN HARTU BEHAR DUZUNA

Profesional honek hezkuntza formalaren eta ez-formalaren sektorean eta haurrei laguntzeko gizarte zerbitzuen sektorean lan egiten du.

Hauek dira jarduera eta lanpostu aipagarrienak:

- Haur-hezitzailea Haur Hezkuntzako lehen zikloan, betiere maisu edo maistra batek gainbegiraturik, Estatuko, autonomia erkidegoko edo tokiko erakundeen mendeko instituzioetan eta ikastetxe pribatuetan.
- Hezitzailea, gizarte arriskuko egoeran dauden adingabeekin (0-6 urte) lan egiteko programa berariazkoetan edo/eta erakundeetan, edo familiei laguntzeko bitartekoetan, beste profesional batzuen gidalerroei jarraituz.
- Hezitzailea, 0-6 urte bitarteko haurrekin, aisia eta astialdiko programa edo jardueretan: ludotekak, kultur etxeak, liburutegiak, hezkuntza zentroak, aisia zentroak, baserri eskolak, etab.

### ZIKLOAREN MODULUAK

- Haur hezkuntzaren didaktika.
- Haurren autonomia pertsonala eta osasuna.
- Haurren jolasa eta horren metodologiak.
- Garapen kognitiboa eta motorra.
- Garapen sozioafektiboa.
- Enpresa eta ekimena.
- Ingelesa I.
- Adierazpena eta komunikazioa.
- Gizarte trebetasunak.
- Familiarekin esku hartzea eta arrisku soziala duten adingabekoei laguntzea.
- Haurrei laguntzeko proiektua.
- Lehen sorospenak.
- Lanerako prestakuntza eta orientazioa.
- Lantokietako prestakuntza.